



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO
DE ESPAÑA



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Justiziako langileak prestatzeko gaitasun digitalen esparrua



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE JUSTICIA



Centro de
Estudios
Jurídicos

Justiziako langileak prestatzeko gaitasun digitalen esparrua



Madrid, 2023

Cita recomendada: Justiziako langileak prestatzeko Gaitasun Digitalen Esparrua.
Centro de Estudios Jurídicos. Madrid, 2023.

Coordinación:

Abigail Fernández González. Directora del Centro de Estudios Jurídicos.

Teresa Muñoz-Reja Herrero. Subdirectora General – Jefa de Estudios del Centro de Estudios Jurídicos.

EDITA: Centro de Estudios Jurídicos

NIPO (ed. electrónica en PDF): 05423003X

Catálogo de publicaciones de la Administración General del Estado:

<https://cpage.mpr.gob.es>

Aurkibidea

1. Sarrera	6
2. Esparruaren aurkezpena	8
2.1 Ezaugarriak eta helburuak	10
2.2 Gauzatzeko metodologia	11
2.2.1 Analisi-fasea	11
2.2.2 Gauzatze-fasea	12
2.2.3 Baliozkotzea eta berrelikadura	12
2.2.4 Inplementazioa eta eguneratzea	12
3. Esparruaren egitura	13
3.1 Gaitasun Digitalaren arloak	13
3.2 Gaitasun-mailak	15
4. Gaitasun-arloak	16
4.1 I. Arloa – Eskubide eta Betebehar digitalak	16
4.1.1 1 Gaitasuna – Eskubide digitalen gutuna ezagutu eta aplikatzea	16
4.1.2 2 Gaitasuna – Jokabide etiko eta juridiko arduratsua	18
4.1.3 3. Gaitasuna – Pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa	20
4.1.4 4. Gaitasuna – Jabetza intelektualeko eskubideen irismena	22
4.2 II. Arloa – Justiziaren Ingurune Digitala	24
4.2.1 1. Gaitasuna – Lan deslokalizatua	24
4.2.2 2. Gaitasuna – Identifikazioa, autentifikazioa eta sinadura elektronikoa	26
4.2.3 3. Gaitasuna – Espediente judizial elektronikoa	28
4.2.4 4. Gaitasuna – Datuari buruzko informazioa kudeatzea eta izapideak egitea	30
4.2.5 5. Gaitasuna – Arazoak konpontzea	32
4.3 III. Arloa – Irisgarritasuna eta herritarrentzako arreta	34
4.3.1 1. Gaitasuna – Justiziarako berdintasunezko eta integraziozko sarbidea	34

4.3.2 2. Gaitasuna – Justiziarako sarbiderako gune digitalak: sentsibilizazioa, informazioa eta herritarrentzako arreta	36
4.3.3 3. Gaitasuna – Berehalakotasun digitala eta lineako zerbitzuak	38
4.3.4 4. Gaitasuna – Eduki digitalak sortzea eta editatzea	40
4.4 IV. Arloa - Eraldaketa digitala eta aldaketaren kudeaketa	42
4.4.1 1. Gaitasuna - Eraldaketa digitalari lotutako aldaketaren kudeaketa	42
4.4.2 2. Gaitasuna - Nork bere burua ezagutzea, ikastea eta etengabe hobetzea	44
4.4.3 3. Gaitasuna - Behar eta erantzun teknologikoen ebaluazioa	46
4.4.4 4. Gaitasuna – Robotizazioa eta adimen artifiziala justiziari aplikatuta	48
4.4.5 5. Gaitasuna - Lankidetzat instituzionala	50
4.5 V. Arloa - Segurtasuna eta Jasangarritasuna	52
4.5.1 1. Gaitasuna - Sistemen eta gailuen segurtasuna eta babesa	52
4.5.2 2. Gaitasuna - Informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna	54
4.5.3 3. Gaitasuna - Segurtasun-gorabeheren kudeaketa eta jakinarazpena	56
4.5.4 4. Gaitasuna - Segurtasuna eta osasuna: laneko arriskuen prebentzioa	58
4.5.5 5. Gaitasuna - IKTen erabilera jasangarria	60
5. Glosarioa	62
6. Erreferentziak	75
7. Araudia	77
7.1 Europa mailakoa	77
7.2 Estatu mailakoa	77

1. Sarrera

Ikasketa Juridikoen Zentroa (CEJ) Justizia Ministerioaren menpeko erakunde autonomoa da. Hautaketa-ikastaroak antolatzen ditu, eta honako hauek trebatzen ditu: Karrera Fiskaleko kideak, Justizia Administrazioako Abokatuen kidegoetakoak, Auzitegi-medikuak, Toxikologia eta Auzitegiko Zientzien Institutu Nazionalako medikuak



eta Justizia Administrazioaren eta Estatuko Abokatuen Kidegoko gainerako langileak. Halaber, Estatuko Segurtasun Judizialaren Indarren eta Kidegoen Polizia judizialaren funtzioan espezializatutako trebakuntza ere eskaintzen du.

CEJ Justizia trebakuntzaren bidez eraldatzeko prozesuetako eragile nagusia izatera deitua dago, eta, horretarako, ikaskuntza-prozesu guztien ikuspegi estrategiko eta integrala eskaintzen du.

Testuinguru horretan, CEJek ematen duen trebakuntzak egungo eta etorkizuneko beharretara egokitu behar du, eta bertan eratzen diren karrerei eta kidegoei beharrezko tresnak, trebetasunak eta baliabideak eman behar dizkie, beren beharrei eta beren bezero diren herritarren beharrei erantzuteko, oro har.

Hori guztia irakasleen eta kolaboratzaileen errefortzu- eta gaikuntza-prozesuetan oinarritu behar da, ematen den trebakuntza gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza-estrategia berritzailera egokitzen dela bermatzeko. Estrategia hori gauzatzea estu lotuta dago IKTen erabilera irakaskuntzan integratzearekin.


Aurreikuspen horiek CEJren 2021-2024 Plan Estrategikoan islatzen dira. Plan horretan, Justiziaren eraldaketa digitalak dakartzan erronken aurrean justiziako langileen gaitasun digitalak hobetzeko beharra aurreikusten da.

Erronka horien aurrean, eta Eskubide Digitalen Espainiako Gutunak proposatzen dituen balioak erreferentziazat hartuta, CEJek **Justiziako langileak prestatzeko Gaitasun Digitalen Esparru** hau egin du, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak (PRTR), 2030 Justizia Planak eta Gaitasun Digitalen Plan Nazionalak bultzatzen dituzten eraldaketa digitaleko eta berrikuntza teknologikoko jarduketei gehitzen zaie.

Beraz, testuinguru horretan, eta eraldaketa digitalak justiziaren sektorean duen eragina kontuan hartuta, Justizia Administrazioako langileentzako Gaitasun Digitalen Esparru honen balio erantsia erreferentzia-eredu integratzaile bat lortzea da. Eredu horretan, justiziaren zerbitzuko operadore eta profesional guztientzat, eta baita herritarrentzat ere, justiziarekiko harremanen testuinguruan funtsezkoak diren gaitasun digitaleko arlo handiak islatuko dira.

2. Esparruaren aurkezpena

Eraldaketa digitalak, berrikuntzak eta bilakaera teknologikoak bultzatuta, aurrerapausoak eta desafioak ekartzen dizkio gizarteari, eta horrek eragina du sektore guztietan, baita justizian ere.



Hori dela eta, sistema judizialak, Zuzenbide Estatuaren zutabe nagusia den aldetik, eskakizun aldakor horiei aurre egiten ari dira, eta aukera teknologiko egokiak jartzen ari dira herritarren. Digitalizazio-prozesu honek gizarte moderno eta aurreratuarekiko konpromisoa eskatzen du, non efikazia, efizientzia eta eraginkortasuna edozein zerbitzu publikotara eraman daitezkeen terminoak baitira, Justizia Administrazioa barne.

Alde horretatik, eraldaketa digitalari esker, errazagoa da Justiziako Zerbitzu Publikora indibidualki sartzea. Gailu digital batetik izapideak, kudeaketak, aitorpenak eta ziurtagiriak egin daitezke. Askotan, murriztu egingo da operadore juridikoen bitartekaritza, eta, beren jarduera garatzen jarraitu arren, gutxitu egingo da arreta presentziala. Prozesu hori eraginkorra izan dadin eta zerbitzu publikoa izatearen abiapuntutik eten digitala minimiza dadin, beharrezkoa da, halaber, herritarrak justiziarekin duen harremanarekin lotura estua duten gaitasun batzuk garatzea, kolektibo ahulenei sarbidea errazteko eta justiziaren paradigma digital berrian moldatzeko behar den guztian laguntzeko.

Trebakuntza judizialeko Europako Estrategiak ezartzen duenez, justiziako profesionalek jakin behar dute tresna eta teknologia digitalek zer-nolako eragina duten izapidetutako kasuetan, eta prest egon behar dute eguneroko jardunean egoki erabiltzeko. Gainera, eremu digitalean pertsonen eskubideak eta datu pertsonalak behar bezala babestuko direla bermatu behar dute, bereziki, aldeek espedienteak ikusi eta auzitegietara jo ahal izan dezaten.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da justizian gaitasun digitalak sustatzea, epaileek, fiskalek, justiziako langileek eta gainerako profesionalek teknologia eta tresna digitalak eraginkortasunez erabili eta aplikatu ahal izan ditzaten, eskubideak eta askatasunak bermatuz.

Hain zuzen, **Trebakuntza Judizialeko Europako Estrategiak** berak eskatzen die trebakuntza judizialeko erakundeei:



Digitalizazioari eta adimen artifizialari buruzko eta prozedura eta espediente judizial elektronikoen erabilera eraginkorrari buruzko sentsibilizazioa eta gaitasunak hobetzeko trebakuntza eskaini eta hobetzea.



Trebakuntza bideratzea pertsonen eskubideak babestera eremu digitalean (adibidez, datuen babesa, pribatutasuna, diskriminaziorik eza, lineako genero-indarkeriaren aurkako babesa, kontratu-zuzenbidea eta kontsumitzailearen eskubideak) eta talde espezifikoaren eskubideak babestera (adibidez, adingabeak, ezgaitasuna duten pertsonak eta genero-indarkeriaren, arrazakeriaren eta diskriminazioaren biktimak).

Testuinguru horretan, esparru hau erreferentzia-eredu orokor eta berritzailea da, CEJren helburuei erantzuten diena, eta haren helburua da gaitasun digitalen egitura antolatu eta orekatua ematea, hartzaileei arlo digitalean gaitzeko etengabeko jabekuntza, garapen eta ikaskuntzan laguntzeko.

Herritartasunaren ikuspegitik gaitasun digitalak izateak esan nahi duenetik abiatuta, justiziaren esparrurako gaitasun digitalen berariazko esparru hau aurkezten da, justiziako profesionalek eta, emandako zerbitzuen subjektu gisa, herritarrek eta beste operadore juridiko batzuek zeharka izan behar dituzten ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak identifikatzen dituenak.

CEJek beharrezkotzat jo du Justizia Eraldatzeko Planaren ildo estrategiko handiei hertsiki lotutako gaitasun digitalak dokumentu honetan jasotzea, ildo horiek eragin zuzena baitute justiziako profesionalen garapen profesionalean eta herritarrentzako arretan.

2.1 Ezaugarriak eta helburuak

Hauek dira Justiziarako gaitasun digitalen esparrua definitzearekin lotu nahi diren helburuak:



Justiziako langileek eraldaketa digitaleko prozesuak jasaten dituen ingurune batean beren eginkizunak garatzeko behar dituzten ezagutza, gaitasun eta jarrera guztiak identifikatzea.



Sektore judizialean gaitasun digitalak sustatzeko sistema komuna ezartzea.



Digitalizazioaren arloko trebakuntza-jardueren garapena zeharka bideratzea lanbide juridikoetara.



Herritarren eskubide eta askatasunak bermatzea, justiziarekiko harremanaren ingurune digitaletan.

Esparrua zentzu zabalean definitzen da, Justiziako Zerbitzu Publikoan esku hartzen duten eta interesa duten guztietara iristeko.

Justiziaren esparruan irakaskuntza-planak definitzeko gida izatea du helburu, plan horiek profil bakoitzak izan behar dituen gaitasun zehatzetara egokitu daitezen.

Gainera, autodiagnostikorako tresna izateko helburua ere badu, beren gaitasun baloratzeko interesa duten pertsonak erabil dezaten, eta, hala, garatu beharreko alderdiak landu ditzaten.

2.2 Gauzatzeko metodologia

Justiziako langileak trebatzeko gaitasun digitalen esparrua prestatzeko, Herriarrentzako Gaitasun Digitalaren Esparrua —DigComp 2.2. — (Vuorikari, Kluzer, Punie, 2022) hartu da oinarritzat, eta talde jakin batzuei zuzendutako gaitasun digitalen beste plan batzuen arrastoari jarraitu zaio, hala nola irakasleen gaitasun digitalen esparrua edo Espainiako Administrazio Publikoaren Institutu Nazionalak (INAP) langile publikoentzat garatutakoa.



Esparrua diseinatu eta gauzatzeko, CEJek gauzatze-prozesu bati jarraitu dio. Prozesu horrek zenbait fase izan ditu, eta fase horiek CEJeko zuzendaritza-organoek eta ikasketaburutzak koordinatu dituzte. Ekimen honen bidez, definitutako bost gaitasun-arloei buruzko trebakuntza bultzatu nahi da, bakoitzaren gaitasun-maila zehatzago deskribatu ondoren.

2.2.1 Analisi-fasea

Lehenik eta behin, justiziako profesionalek gaitasun digitalen arloko trebakuntzari buruz egiten dituzten eskaerak detektatu eta ulertu dira. Hori dela eta, justiziaren esparruko lanpostuetan eraginkortasunez jarduteko behar diren gaitasun digitalei buruzko informazioa ikertu eta bildu behar izan da aldez aurretik.

Horretarako, aipatutako eskumen digitalen esparruak eta justiziaren digitalizazioaren arloko Europako ekimenak erreferentziazat hartzeaz gain, Espainiako Justizia Administrazioaren esparruan informazio-teknologien erabilera arautzen duen araudi nazionala aztertu da.

Beraz, aurkezten den gaitasun digitalen esparruak, justiziako langileen trebakuntza digitalen inguruko Europako jarraibideei ez ezik, Espainian lantzen ari den justiziaren eraldaketa digitaleko prozesuari ere lotzen da, Justizia Ministerioaren Justizia 2030 proiektuaren esparruan dagoena.

2.2.2 Gauzatze-fasea

Analisi-fasearen ondoren, gaitasun digitalen esparrua landu dugu. Horretarako, lehenik eta behin, justizia-sektorerako funtsezkoak diren gaitasunak identifikatu dira, eta justizia-langileek beren jarduera-eremuko zereginak eta erantzukizunak gauzatu ahal izateko izan behar dituzten trebetasunak, ezagutzak eta jarrerak identifikatu dira. Funtsezko gaitasunak zehaztu ondoren, gaitasun-arlo zehatzen inguruan bildu dira.

Ondoren, gaitasun-mailak definitu dira, gaitasun digitalak eskuratzean izandako aurrerapena deskribatzeko eta gaitasunen hazkunde- eta garapen-prozesua islatzeko.

Azkenik, definitutako gaitasun bakoitza deskribatu da, eta trebetasun-maila bakoitzean gaitasun bakoitzerako behar diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak zehaztu dira, deskribatzaile argi eta ulergarriak erabiliz.

2.2.3 Baliozkotzea eta berrelikadura

Hurrengo fasean, justizia-arloko aditu-taldeek esparrua baliozkotzea eta berrelikadura lortzea da helburua. Horretarako, topaguneak eta parte hartzeko kontsultak egingo dira, esparrua garrantzitsua eta zehatza izango dela bermatzeko.

2.2.4 Inplementazioa eta eguneratzea

Azkenik, gaitasunen esparru hori berariazko trebakuntza-planetan gauzatu behar da, justiziako langileek hemen deskribatzen diren eta beren Justiziako lan-esparruan betetzea beharrezkotzat jotzen diren gaitasun digitalak eskuratu eta garatzeko aukera izan dezaten.


Gainera, ezinbestekoa da gaitasun digitalen esparrua eguneratuta izatea eta aldizka berrikustea, teknologia- eta arau-aldaketetara eta sektorearen eskaera berrietara egokitzeko.

3. Esparruaren egitura

3.1 Gaitasun Digitalaren arloak

Esparru honek Europa mailan egindako lanetan erabilitako egitura, terminologia eta gaitasun-mailak hartzen ditu erreferentzia gisa: Herritarrentzako Gaitasun Digitalaren Esparrua —DigComp 2.2. — (Vuorikari, Kluzer, Punie, 2022), Hezitzaileen Gaitasun Digitalerako Europako Esparrua —DigCompEdu— (Redecker, 2020) eta Hezkuntza Erakundeetarako Europako Esparrua —DigCompOrg— (Kampylis, Punie eta Devine, 2015).

Jarraian aurkezten den proposamenak **5 gaitasun-arlo ditu**: (I) Eskubide eta betebeharrak digitalak, (II) Justizia digitalaren ingurunea, (III) Irisgarritasuna eta Herritarrentzako Arreta, (IV) Eraldaketa Digitala eta Aldaketaren Kudeaketa, eta, azkenik, (V) Segurtasuna eta Jasangarritasuna; hori guztia sistema judizialaren ingurune digitalari aplikatuta.



.1irudia Gaitasun-arloak

Era berean, gaitasun-arlo bakoitzak esparru zehatz horrekin zerikusia duten gaitasun batzuk biltzen ditu, justiziako langileak prestatzeko 23 gaitasun digitzalez osatutako esparru osoa eratu arte.




3.2 Gaitasun-mailak

Aurreko gaitasun horietako bakoitzak lau **trebetasun-maila** (4) ditu, eta, horien bidez, erabiltzaileak gaitasun digital jakin batean duen sakontze-maila identifikatzen da, oinarrizko mailatik (A) adituraino (D).

Aurreko atalean aipatutako Gaitasun Digitaleko Esparruen egiturak eta hiztegiak inspiratuta, gaitasunak eskuratzeko aurrerapena hiru arlotan deskribatzen da: zereginen **konplexutasuna**, **autonomia** eta horiek gauzatzeko orientazio-beharra eta ekintza-aditzak erabiltzeak adierazitako **ezagutza kognitiboa** Bloom-en taxonomiari jarraiki.

Gaitasunen garapen-mailak jakintza-arlo bakoitzaren ezaugarrien eta bakoitzeko einkizun konplexutasunaren arabera esleitzen dira.

Hona hemen **gaitasun-mailak**:



3. irudia Gaitasun-mailak

Hala, CEJren Gaitasun Digitalen Esparruak **bost** gaitasun-arlo ditu, guztira **23 gaitasun** dituztenak. Horietako bakoitzerako **lau trebetasun-maila** definitzen dira, eta ezagutzetan, gaitasunetan eta trebetasunetan oinarritutako **92 deskribatzaile** lortzen dira guztira.

4. Gaitasun-arloak

4.1 I. Arloa – Eskubide eta Betebehar digitalak



Eskubide eta Betebehar digitalen arloak justiziaren ingurune digitala duten eskubide eta erantzukizunetan jartzen du arreta, eta justiziaren esparruan informazioaren eta komunikazioen teknologien erabilera arduratsua, etikoa eta segurua bermatzen du.

4.1.1 1 Gaitasuna – Eskubide digitalen gutuna ezagutu eta aplikatzea

Deskribapena

Pertsonen eskubideak eta askatasunak ingurune digitalean ulertu, ezagutu eta aplikatzeko gaitasuna, baita, Eskubide Digitalen Gutunaren bidez, horiek babesten dituzten bermeak ere.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Ulertzen dut Eskubide Digitalen Gutunak duen garrantzia, ingurune digitalean pertsonen oinarrizko eskubideak babesteko erreferentzia-esparru gisa.



Eskubide digitalen gutunean jasotako eskubide eta askatasun nagusiak identifikatzen ditut.



Ingurune digitalean eskubideen erabilera baketsua eta arduratsua sustatzeko eta bermatzeko beharra ulertzen dut.

Ertaina



Jabetzen naiz eskubide eta askatasun digitalak erabiltzeak betebeharrak eta eginkizun batzuk dakartzala.



Gutunean jasotako eskubide eta askatasunen erabilera nire jarduerarekin eta IKTen bidez ingurunean eta gizartean egunero interakzioak izateko moduarekin lotzen dut.



Eskubide eta betebeharrak digitalak babestu eta betetzeko konpromisoa hartzen dut.

Aurreratua



Eskubide Digitalen Gutunean nire jarduera-eremuan jasota dauden belaunaldi berriko eskubideak eta askatasunak aplikatzen ditut eta haiek betetzen direla bermatzen dut.



Eskubide Digitalen Gutuneko eskubide eta askatasunen irismena ebaluatzen dut, bai orokorrak bai ingurune espezifikoetarako dagozkienak.



Gutunean onartutako eskubide digitalen ezagutza sakontzen dut, errealitate digitalaren eremu espezifikoetarako dagozkienez (adimen artifizialarekiko eskubideak, eskubide digitalak neuroteknologiaren erabilera, ingurune digitalean osasuna babesteko eskubideak, sorkuntza-askatasuna eta ingurune digitalean kultura eskuratzeko eskubideak).

Aditua



Idea berriak sortzen eta transmititzen ditut, eta hainbat ekimen sustatzen ditut eskubide digitalak defendatzeko eta babesteko nire ingurune pertsonalean eta lan-ingurunean. .



Besteei Eskubide Digitalen Gutunaren esanahia eta irismena ulertzen laguntzen diet.



Jarrera kritikoa eta konstruktiboa garatzen dut, aplikazioari eta irismenari dagokienez.

4.1.2 2 Gaitasuna – Jokabide etiko eta juridiko arduratsua

Deskribapena

IKTen erabileran jokabide etiko eta juridiko arduratsua aplikatzeko eta sustatzeko gaitasuna, ingurune digital arduratsua, segurua eta errespetuzkoa arautzen eta bermatzen duten printzipio, balio eta arauen arabera.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Onartzen dut garrantzitsua dela baliabide digitala arduraz erabiltzea.



Jarrera positiboa eta harkorra hartzen dut etika digitalaren printzipio eta arauetikiko.



Ez dut pertsonen edo erakundeen kontrako iruzkin oldarkorrik egiten, ezta halakorik sustatu edo sostengatzen ere, eta ulertzen dut zer eragin izan dezakeen nire portaerak sareetan.

Ertaina



Ingurune digitalari dagozkion gizarte-kontzientziaren parametroen arabera jarduten naiz sistematikoki.



Zentzua eta printzipio etikoak irizpidez aplikatzen ditut nire ingurune digitalaren kudeaketan.



Eskura ditudan tresna digitalak modu arduratsuan erabiltzen ditut.

.

Aurreratua



Ingurune digitalean gizalegearen, berdintasunaren, inklusioaren, ekitatearen eta eskubideak eta askatasunak errespetatzearen inguruko jardunbide egokiak ditut.



Partekatu aurretik jasotzen dudan informazioaren egiazkotasuna egiaztatzen dut *fake news* (albiste faltsuak) edo *deepfakes* (gezur sakonak) zabaltzen ez laguntzeko.



Jokabide etikoak eta ez direnak edo jokabide arduragabeak direnak identifikatu eta bereizten ditut, eta ingurune digitalean onargarriak ez diren praktikak salatzen ditut.

Aditua



Praktika desagokiak edo jokabide arduragabeak saihesteko estrategiak garatzen ditut (bortxatzea, iruzur egitea, tartean sartzea, manipulatzeko, plagiatzea, pribatutasuna eta bestelako eskubideak urratzea, etab.).



Printzipio eta balio etikoak zabaltzen eta sustatzen laguntzen dut, bai eta ingurune digitalean jardunbide egokiak izaten ere, eta nire inguruko beste operadore batzuk orientatzen ditut IKTak era etiko eta juridikoki arduratsuan erabil ditzaten.



Komunitatea sortzen laguntzen dut, iritzi-aniztasuna errespetatuz eta sarean jarrera etiko eta juridikoki arduratsuari buruzko lan-taldeetan parte hartuz.

4.1.3 3. Gaitasuna – Pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa

Deskribapena

Norberaren nahiz hirugarrenen informazioa eta datu pertsonalak modu legal, arduratsu eta egokian tratatzeko gaitasuna, haien pribatutasuna eta osotasuna babesteko.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Badakit oso garrantzitsua dela datu pertsonalen pribatutasuna eta babesa bermatzea, bai norberarena bai erakundearena, bai datu horiek erabiltzeak dakartzan arriskuak ere.



Datu pertsonalaren kontzeptua erabiltzen dut, eta badakit, tratatzen diren moduaren arabera, datuek indibiduoak identifikatzeko aukera ematen dutela, eta nabigazioak eta lineako lanak nire jardueraren aztarnak utz ditzaketela.



Bereziki sentikortzat jo daitezkeen datu motak identifikatzen ditut, eta badakit datuen pribatutasuna bermatzeko tresnak badaudela.

Ertaina



Datu pertsonalen pribatutasunari eta babesari buruzko Espainiako eta Europako araudia identifikatzen dut, eta hainbat testuingurutan nola aplikatzen den ulertzen dut.



Datuak babesteko oinarrizko printzipioak ulertzen ditut, hala nola baimen informatuaren printzipioa, datuen minimizazioa, helburu mugatua, zehaztasuna, segurtasuna eta atxikitze mugatua, datu pertsonalen babes egokia bermatzeko.



Segurtasun- eta pribatutasun-teknologiak eta -tresnak erabiltzen ditut datu pertsonalen babesa bermatzeko. Horren barruan sartzen da enkriptatzeko, autentifikatzeko, anonimizatzeko eta datuak babesteko teknikak ezagutzea.

Aurreratua



Ebaluatu eta identifikatu egiten ditut nire eginkizunei lotutako datuen pribatutasunerako eta babeserako edo proiektu berriak abian jartzeko arriskuak eta balizko inpaktuak.



Zerbitzu-emaileen pribatutasun-politika eta datu-babeserako politiken baldintzak kontsultatzen ditut eta tratamendu hori legitimatzen duten oinarri juridikoak eta gainerako elementuak identifikatzen ditut.



Beste pertsona batzuei laguntzen diet haien datuen pribatutasun- eta babes-beharren inguruan, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren (AEPD) gomendio eta materialen kontsulta sustatuz, eta arlo horretan indarrean dagoen araudia betetzeko gaitzen ditut.

Aditua



Zerbitzu-emaileen pribatutasun- eta datu-babeserako politiken baldintzak kontsultatzen ditut, eta zehaztasunez ebaluatzen dut tratamenduaren irismena.



Datu pertsonalak babesteko eskubidearen babesaren inguruko ezagutza eta kultura sustatzeko eta horren garrantziaz jabetzeko ekimenak antolatzen eta zabaltzen parte hartzen dut.



Erakunde batek, publikoa nahiz pribatua izan, indarrean dagoen araudia bete gabe, datu pertsonalak bildu, tratatu edo erabiltzen dituenean egoera identifikatzen dut eta horren berri ematen dut.

4.1.4 4. Gaitasuna – Jabetza intelektualeko eskubideen irismena

Deskribapena

Eduki digitalen sorrera eta erabilera babesten duten legezko eskubideen irismena ulertzeko gaitasuna, ideia eta sorkuntza berriak sortzen dituztenen aintzatespen egokia bermatuz.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Oro har onartzen dut ezagutza, ideiak eta material edo eduki digitalak, edozein formatutan aurkezten direla ere, Jabetza Intelektualeko Eskubideen (DPI) bidez babestu beharreko ondasun eta baliabideak direla.



Esparru digitalean egile-eskubideak ezagutzen eta errespetatzen ditut, bai edukiak eskuratzeari dagokionez, bai edukiak deskargatu, erabili edo aldatzeari dagokionez.



Plagioa egiaztatzeko tresnen helburua eta ezaugarri orokorrak ezagutzen ditut.

Ertaina



Ezagutzen ditut Interneten aurkitzen ditudan baliabideak berrerabiltzeko edo zabaltzeko aukera ematen duten erabilera-lizentzien ezaugarriak eta eduki digitalei nola eragiten dieten (*copyright* (C), *copyleft* (C), *Creative Commons* (CC)).



Baliabide digitalen iturria eta egileak kontrastatzen ditut erabili aurretik.



Baliabide digitalak bilatzen ditudanean, laguntza egokiarekin egiaztatzen dut erabiltzeko lizentziarik baduten eta, baiezko kasuan, zein motatakoa den, eta nire xedeetarako lizentzia egokia dutenak bakarrik erabiltzen ditut.

Aurreratua



Xehetasunez ezagutzen ditut *Creative Commons* erabiltzeko baldintzak (Aintzatespena, Ez komertziala, Lan eratorririk gabe, Berdin partekatu) eta horietatik abiatuta aplika daitezkeen lizentzia motak.



Plagioa egiaztatzeko tresnen erabileran gaitzen ditut, eta beste pertsona batzuei antzekotasun-txostenak interpretatzen laguntzen diet.



Jatorrizko edukia sortzen dudanean, nire eskubideak hobekien babesten dituen lizentzia aukeratzen dut, errazago berrerabiltzeko.

Aditua



Egile-eskubideek babestutako eduki digitalak aipatzeko eta berrerabiltzeko araudia, jarraibideak eta metodoak modu autonomoan eguneratzen ditut, eta horiek ez betetzearen legezko ondorioak ezagutzen ditut.



Justizia Administrazioan egile-eskubideak eta jabetza intelektuala errespetatzeak duen garrantziaz kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko programak ezartzen laguntzen dut.



Sarbide irekiko lizentziadun edukien argitalpena sustatzen duten proiektuak zuzentzen ditut, eta horien oinarri teorikoak eta esparru akademikoan, sektore publikoan eta herritarrengan aplikatzeak dituen onurak transmititzen ditut.

Ertaina



Komunikazio digital eraginkorraren argibideei jarraitzen diet administrazio publikoaren berezko lankidetzatresnak erabiltzen ditudanean; tresna horien bidez komunikatzen naiz eta informazioa trukatzeko (adibidez, fitxategiak partekatzen ditut).



Nire lanpostuari dagozkion eginkizunei lotutako tresna teknologikoak (aplikazioak) erabiltzen ditut, modu autonomoan, eginkizun konplexuak betetzeko.



Ezagutzen ditut sistemen elkarreragingarritasunaren eta erabilgarritasunaren kontzeptuak.

Aurreratua



Beste erabiltzaile batzuen beharrak asetzen ditut testuinguru digitaletan, eta komunikazio-formatu bakoitzaren egokitasuna identifikatzen dut helburuaren arabera.



Sarean eta ingurune digitaletan banatutako lantaldeak zuzentzen eta koordinatzen ditut.



Erraz erabiltzen ditut sistemen elkarreragingarritasuna eta erabilgarritasuna terminoak.

Aditua



Eraldaketa digitalaren irismena neurtzen dut, eta nire lan-arloko proiektuen orientazio estrategikoan txertatzen dut, horretarako estrategiak eta komunikazio-moduak hartzaile espezifikoari egokituz.



Ingurune digitaletan jardunbide egokiak egiteko gai naiz eta lan-politika deslokalizatuei buruzko gidak diseinatzen laguntzen dut.



Erabiltzaile-profil desberdinak erabiltzen ditut eta sistemak eta gailuak eguneratu direla egiaztatzen dut. Horren bidez, funtzionamenduakatsak edo -ahultasunak eta horiei dagozkien irtenbideak identifika ditzaket.

4.2.2 2. Gaitasuna – Identifikazioa, autentifikazioa eta sinadura elektronikoa

Deskribapena

Alderdi juridikoak ulertzeko eta ingurune digitaletan identifikazioa eta autentifikazioa ahalbidetzen duten prozesuak, mekanismoak eta teknologiak erabiltzeko gaitasuna, sinadura elektronikoaren erabilera seguruari arreta berezia eskainiz.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Identitate, identifikazio eta sinadura elektronikoaren kontzeptuak ulertu eta bereizten ditut.



Sinadura eta ziurtagiri elektronikoen erabilerari lotutako esparru juridikoa ulertzen dut, bai eta horrek administrazio publikoetan, operadore juridikoetan eta herritarrengan duen eragina ere.



Legez onartutako identifikazio eta autentifikazio bideen kontzeptua eta funtzionamendua ulertzen ditut.

Ertaina



Ziurtagiri elektronikoen eta elektronikoki sinatutako dokumentuen ezaugarriak, balioa eta propietateak ezagutzen ditut.



Ziurtagiri elektronikoak erabiltzen ditut, laguntzarekin, nire burua identifikatzeko eta behar duten aplikazioetan autentifikatzeko.



Hainbat aplikazio erabiltzen ditut, laguntzarekin, elektronikoki sinatzeko.

Aurreratua



Identitate elektronikoaren ikuspegi osoa eta eguneratua dut.



Ziurtagiri elektronikoak erabiltzen ditut, modu autonomoan, behar duten aplikazioetan nire burua identifikatu eta autentifikatzeko, bai eta elektronikoki sinatzeko ere.



Autonomia eta proaktiboa naiz ziurtagiri elektronikoak lortu eta berritzeko prozesuan.

Aditua



Herritarrek eta Justizia Administrazioak erabiltzen dituzten identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko sistemak aztertzen ditut, eta hobetzeko estrategiak proposatzen ditut.



Dokumentu elektronikoen egiazkotasuna egiaztatzen dut, Justizia Administrazioaren berezko izapide telematikoetan erabilitako identifikazio elektronikoko bitartekoen testuinguruan.



Ezarritako identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikorako tresnak erabiltzen trebatzen dut eta trebakuntzako edukiak diseinatzen laguntzen dut.

4.2.3 3. Gaitasuna – Espediente judizial elektronikoa

Deskribapena

Lan-prozesuetan, prozedura elektronikoa judizialen tramitazioan eta jarduketan judizialean bitarteko elektronikoak ulertu eta aplikatzeko gaitasuna.

Trebetasun-mailak

Oinarritzkoa



Badakit Justizia Administrazioaren sistemak beren kudeaketa- eta antolaketa-modua aldatzeko prozesuan daudela, sareko lanean eta berrikuntzan oinarrituta.



Ezagutzen dut IKTak Justizia Administrazioan erabiltzeko araudia.



Espediente judizial elektronikoen berezko ezaugarriak eta Justizia Administrazioaren eraldaketa digitalaren esparruan dituen ondorioak identifikatzen ditut.

Ertaina



Ezagutzen dut espediente judizial elektronikoen kontzeptua, baita agiri judizial elektronikoa eta haren artxibatze-sistemarena ere.



Oro har, ezagutzen ditut espediente judizial elektronikoen funtzionalitateak eta haren arau-esparrua.



Badakit nola sartu prozeduran EJE erabiliz.

Aurreratua



Espediente judizial elektronikoaren kontzeptu osoa erabiltzen dut (barne-ikuspegia eta kanpoko dimentsioa).



Badakit nola kudeatzen den prozedura judizial bat, hasieratik amaierara, Administrazio elektronikoaren bidez.



EJEko arau-esparruaren eta eskaintzen dituen abantailen inguruko trebakuntza ematen dut.

Aditua



Lidergo-estrategia eta -eredua ezartzen laguntzen dut, espediente judizial elektronikoa berme osoz ezartzeko.



Espediente judizial elektronikoa ezartzeko prozedurei dagozkien lan-metodologiak baloratzeko gai naiz, eta hobetzeko puntuak identifikatzen ditut.



EJE erabiltzeko praktika egokien gidak diseinatzen eta eguneratzen laguntzen dut.

4.2.4 4. Gaitasuna – Datuari buruzko informazioa kudeatzea eta izapideak egitea

Deskribapena

Datuen erabilera eraginkorra bermatuko duten prozesuak kudeatu eta tramitatzeko gaitasuna, datuen bilketa, kudeaketa, trukea eta analisi egokia modu eraginkor eta seguruan eginez. Helburua da datuetan oinarritutako erabakiak hobeto hartzea, eraginkorragoak eta herritarrengandik hurbilagoak direnak, eta administrazioen arteko lankidetzaren printzipioekin lan egitea.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Datuari begira dagoen justizia kontzeptua ezagutzen dut, baita Justiziako datuaren adierazpenean jasotako printzipioak eta helburuak ere.



Onartzen dut herritarrek eta botere publikoek eskubidea dutela Justizia Administrazioaren jarduerari buruzko datuak kontsultatzeko, eta Administrazioak datuok prestatu eta zabaltzeko duen betebeharra dagoela.



Badakit zer ondorio dituen datuak ezarritako kalitate- eta nomenklatura-estandarren arabera biltzeak eta gordetzeak, baita hori ez egiteak ere.

Ertaina



Justiziako datuaren adierazpenaren helburuak nire jardun-eremuan onartu eta aplikatzen ditut.



Nire eginkizunen esparruan, prozedurako izapide guztiak formatu digitalean egiten ditut, datuak modu eraginkorragoan kudeatu ahal izateko eta paperezko dokumentazioaren beharra ezabatzeko.



Ezagutzen ditut Justizia Administrazioaren datu-atariak eta Justiziaren esparruko informazio kuantitatibo bereizi eta georreferentziatutako beste sistema batzuk.

Aurreratua



Nire eskumenen barruan, justiziaren esparruko informazio kuantitatibo bereziaren eta georreferentziatuaren sistemak erabiltzen eta elikatzen ditut.



Datuak aztertu eta ustiatu ondoren, nire jarduera-eremuko hobekuntza-arloak identifikatzen ditut.



Datuari begira justizia-sektorearen kudeaketa publikoaren etengabeko hobekuntzari buruzko emaitzak islatzen dituzten adierazleak eta indizeak identifikatu eta definitzen ditut.

Aditua



Datuari zuzendutako izapidetze-prozedurak aztertzen ditut, datuen aprobetxamendu baztertzailerari aurrea hartzeko, eta justizia-sektoreko datuetara bideratutako tratamendua kulturizatzeko eta sustatzeko programak ezartzen laguntzen dut.



Erabaki informatuak hartzen ditut eta, datuak aztertu eta ustiatura, hobetu beharreko arloak sustatzen ditut.



Justizia-sektoreko talde espezifikoak trebatzen ditut beren lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko garaian datuek duten garrantziari buruz, bai eta kudeaketa-sistema prozesalaren eremuan datuak sartzeko, kudeatzeko eta interpretatzeko duten funtsezko eginkizunari buruz ere.

4.2.5 5. Gaitasuna – Arazoak konpontzea

Deskribapena

Ingurune eta tresna digitalen helburuaren arabera erabilera- eta egokitasun-beharrak identifikatzeko gaitasuna izatea, horiek erabiliz arazo kontzeptualak konpontzea, teknologien erabilera lanpostuaren berezko funtzioei aplikatzea eta arazo teknikoak konpontzea.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Ezagutzen ditut Administrazioak nire esku jartzen dituen gailu, tresna, ingurune eta zerbitzu digitalen ezaugarriak.



Arazo tekniko bat identifikatzen dut, eta badakit norengana jo arazo hori konpontzeko eta zein kanalen erabili behar ditudan horretarako.



Argi azaltzen dut zer den ingurune eta tresna digitaletan identifikatu dudan gorabehera edo funtzionamendu okerra.

Ertaina



Administrazioak nire eskura jartzen dituen gailu, tresna, ingurune eta zerbitzu digitalak erabiltzen ditut, erabilera egokirako argibideei jarraituz.



Arazo teknikoren bat izanez gero, badakit haren larritasuna identifikatzen eta eskuliburu teknikoa edo dagokion erabilera-gida aurkitzen.



Nire lanpostuari dagozkion funtzioei lotutako tresna eta ingurune digitaletan buruzko arazo tekniko ez-komplexuak konpontzen ditut.

Aurreratua



Era autonomoan konpontzen ditut nire lanpostuari dagozkion funtzioei lotutako tresna eta ingurune digitalei buruzko arazo tekniko konplexuak.



Beste erabiltzaile batzuei laguntza ematen diet Justizia Administrazioako tresna eta ingurune digitalen ohiko erabileran arazo teknikoak konpontzen.



Teknologia digitalak modu sortzailean eta berritzailean erabiltzen ditut, eta katalogoa eguneratzen laguntzen dut behar berriak detektatuta.

Aditua



Lankidetzat-taldeetan edo komunitate digitaletan parte hartzen dut, Justizia Administrazioako gailu, tresna, ingurune eta zerbitzu digitalen erabilerari buruzko arazo teknikoak irtenbide berriak aurkitzeko.



Adimen artifizialeko (AA) tresnak entrenatzen laguntzen dut, arazoak *out of the box* ebazteko sailkatzaile, kuantifikatzaile eta segmentatzaileetatik abiatuta.



Arazo kontzeptual edo teknikoen aurrean, adimen artifizialeko (AA) sistema berezietara jotzen dut.

4.3 III. Arloa – Irisgarritasuna eta herritarrentzako arreta



Deskribapena del área

Irisgarritasuna eta herritarrentzako arreta arloak Justizia Administrazio Digitalerako sarbide unibertsala eta berdintasunezkoa bermatzeko beharrezko gaitasunak lantzen ditu, norbanakoen ezaugarriak edo inguruabar zehatzak alde batera utzita. Horrek esan nahi du atzeman eta kendu egin behar direla gizartean pertsonen erabateko eta bidezko parte-hartzea mugatu edo eragotz dezaketen oztopoak.

4.3.1 1. Gaitasuna – Justiziarako berdintasunezko eta integraziozko sarbidea

Deskribapena

Irisgarritasuna bermatzeko metodologiak eta tresnak ulertu eta erabiltzeko gaitasuna izatea, bereziki, dibertsitate funtzionala, adina, etnia, hizkuntza eta bestelako faktoreengatik bereziki zaurgarriak izan daitezkeen kolektiboei justiziarako sarbidea erraztera bideratuak.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Irisgarritasunaren kontzeptua eta hura arautzen duen estatuko araudia ezagutzen ditut.



Badakit dibertsitate funtzional mota desberdinak daudela.



Ezagutzen ditut bazterketa-arriskuan dauden taldeetako pertsonekin harreman eraginkorra izateko jarraibide orokorrak.

Ertaina



Irisgarritasun unibertsalaren kontzeptua eta hura arautzen duen estatuko eta nazioarteko araudia ezagutzen ditut.



Bazterketa-arriskuan dagoen talde mota bakoitzaren ezaugarriak eta berariazko beharrak ezagutzen ditut.



Identifikatzen ditut Justizia Administrazioak herritarren eta eragile juridiko publiko nahiz pribatuen esku jartzen dituen eta gutxiengoen kolektibo mota bakoitzaren beharrei erantzuten dieten metodologiak eta tresnak (irakurketa erraza, tresna tifloteknikoak, etab.).

Aurreratua



Beharrezkoa den guztietan, dibertsitate funtzional mota bakoitzaren beharrei erantzuten dieten metodologiak eta tresnak aplikatzen ditut nire lanpostuari dagozkion funtzioen garapenean.



Hartzaile guztiek berdintasun-baldintzetan erabiliko dituztela ziurtatzeko inguruneak izan behar dituen ezaugarriak ezagutzen ditut.



Teknologia pertsonei laguntzeko erabili behar den moduari buruz trebatzen dut, eta lagundu egiten dut Justizia Administrazioko edukien irisgarritasun digitala mantentzen/hobetzen.

Aditua



Irisgarritasun unibertsala kudeatzeko sistema batek bete behar dituen baldintzak interpretatzen ditut.



Justizia Administrazioaren baliabide eta kanal digitalen eskuragarritasuna ebaluatzen dut eta hobetzeko aukerak identifikatzen ditut.



Genero-ikuspegia irisgarritasun digitaleko politiketan ezartzen laguntzen dut.

4.3.2 2. Gaitasuna – Justiziarako sarbiderako gune digitalak: sentsibilizazioa, informazioa eta herritarrentzako arreta

Deskribapena

Justizia Administrazioaren eta hari lotutako edo haren mendeko erakunde publikoen kanal eta informazio digitalen erabilera sustatzeko gaitasuna, eta espazio horiek ulertzen eta erabiltzen laguntzea herritarrei.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Ezagutzen dut babes judizial eraginkorra bermatzen duen arau-esparrua.



Ulertzen ditut Justizia Administrazioan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko arauak eta dagozkien sarbideak.



Ezagutzen dut Justizia Administrazioaren sarbide orokorraren kontzeptua, baita egoitza judizial elektronikoena ere, eta jabetzen naiz Justizia sektorearen berezko bide birtualak badaudela eta kalitatezko zerbitzu publiko bat bermatzeko duen garrantziaz.

Ertaina



Justizia Administrazioaren kanal birtualak identifikatzen eta aurkitzen ditut.



Babes judizial eraginkorra bermatzen duten prozedura-tresnak ezagutzen ditut, bai eta autonomia-erkidegoen arabeko egoitza judizial elektronikoaren mapa ere.



Ulertzen dut Justizia Administrazioaren esparruko zerbitzu, prozedura eta informazio eskuragarriak eskuratzea errazten duten egoitza judizial elektronikoaren funtzionamendu orokorra.

Aurreratua



Justizia Administrazioaren kanal digitalak sistematikoki erabiltzen ditut nire lanpostuari dagozkion funtzioak edo nire herritar-profilari dagozkionak betetzeko.



Era autonomoan informatzen naiz justiziarako sarbideen gune digitalei buruzko berrikuntzei buruz.



Justizia Administrazioko kanal digitalak erabiltzeko trebakuntza ematen dut.

Aditua



Justizia Administrazioaren kanal digitalei lotutako prozeduren kalitatea ebaluatzen dut eta dagozkien eguneratzeak proposatzen ditut.



Ingurune digitalean herritarren arretarako joera berriak aztertzen laguntzen dut (adibidez: kanal digitaletan hizkuntza argia erabiltzea).



Justizia Administrazioaren ingurune digitalerako irisgarritasun-printzipioak birdiseinatzeko aukera gisa interpretatzen ditut, indarrean dagoen arau-esparrutik haratago.

4.3.3.3. Gaitasuna – Berehalakotasun digitala eta lineako zerbitzuak

Deskribapena

Gaitasun honetan sartzen dira berehalakotasun digitalaren eta zerbitzu ez-presentzialen arrakasta bermatzeko behar diren ezagutza, trebetasun, eta jarrera guztiak, eta, horretarako, herritarrei, oro har, eta profesionalei, bereziki, Justizia Administrazioarekin harremanetan egoteko aukera ematen dieten prozesuei eta tresnei buruzko gaitasunak lantzen dira.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Ezagutzen ditut Ingurune Digitalaren eta zerbitzu ez-presentzialen esparrua, eta horrek prozedura judizialak eta audientziak urrunetik egiteko dituen ondorioak, bideokonferentzia-teknologiak edo bestelako tresna digitalak erabiliz.



Badakit badirela tresna teknologikoak berehalakotasun digitalaren esparruan abian jarri direnak.



Badakit nola bidali idazki bat epaitegi batera nire jurisdikzioaren arabera dagokion tresna estandarizatuaren bidez.

Ertaina



Berehalakotasun digitala eta zerbitzu ez-presentzialak bermatzen dituzten tresnak identifikatzen eta aurkitzen ditut.



Epaitegi eta auzitegietan epaiketa telematikoak egiteko prestatutako soluzio teknologikoen funtzionamendu orokorra ezagutzen dut.



Espediente digitaleko dokumentuak erantsi eta partekatzen ditut berehalako ekintza digitaletan.

Aurreratua



Berehalakotasun digitala bermatzen duten tresnak behar bezala erabiltzen laguntzen diot erabiltzaileari.



Justizia Administrazioako langileak gaitzen ditut bideokonferentzia bidezko tramiteetan, hitzorduak sortu eta kudeatzean, etab.



Kontaktu-puntua aldatzeko sistemak kudeatzen ditut, sistemei baimendutako beste profil batzuk adierazteko eta dagokion izapidearen segimendua egiteko.

Aditua



Ikuspegi osoa dut pertsonen, erakundeen, prozesuen eta tresnen dagozkien alderdiez, herritarrei eta eragile juridikoei aukera ematen baitiete Justizia Administrazioarekin harremanetan jartzeko, hitzordu presentzialik beharrik gabe.



Berehalakotasun digitalari eta zerbitzu ez-presentzialei aplikaturik, erabiltzailearen segurtasun juridikoa eta, beraz, administrazio elektronikoan duen konfiantza areagotzen dituzten metodo eta prozesuak ezartzen laguntzen dut.



Zenbait komunikazio-sistema erabiltzen ditut dagozkidan jarduketak egiteko, lurralde-barrutia edozein dela ere (LexNet, Vereda, JustiziaSIP, Justiciacat, PSP).

4.3.4 4. Gaitasuna – Eduki digitalak sortzea eta editatzea

Deskribapena

Gaitasun honen barruan sartzen dira kalitateko eduki digitalak bilatu, sortu, editatu eta partekatzeko beharrezkoak diren ezagutzak gaitasunak, jarrerak eta trebetasunak, jarduketa-esparrua edozein dela ere.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Bilaketa sinpleak egiten ditut bilaketa-motor generikoetan, informazioa fidagarria eta legezkoa dela ziurtatuz.



Ezagutzen ditut Justizia Administrazioaren dokumentu digital motak, gehien erabiltzen den nomenklatura eta horiek betetzeko jarraibide orokorrak.



Legezko dokumentuak idazten ditut, horretarako diseinatutako formulario bat eskuz betez.

Ertaina



Datu-base juridiko batetik abiatuta egiten ditut bilaketak, dagozkien iragazkiak aplikatuz, eta informazioa lerro juridikoan bilatzen dudanean, emaitzak kontrastatzen ditut hainbat iturritara joz.



Testuingurua kontuan hartzen dut modu sistematikoan, aurkitu eta egiaztatu dudan informazioa erabili aurretik.



Legezko dokumentuak idazten ditut, txantilo automatizatuak erabiliz. Txantilo horiek eremuak osatzen dituzte aurrez emandako informazioarekin.

Aurreratua



Nire bilaketaren helburuetarako datu-base juridiko egokiena identifikatzen dut, eta bilaketa-motor aurreratuak eta operadore boolearrak aplikatzen ditut.



Lege-sektorerako espezifikoak diren dokumentu-kudeaketarako sistemak erabiltzen ditut, eta horien barruan badakit espazio berriak nola sortu.



Legezko dokumentuak idazten ditut, datu-baseei lotutako txantiloietatik abiatuta, horien segimendua egiteko.

Aditua



Eduki digitalen bilaketa juridikoak egiten ditut, bai datu-base espezializatuetan, bai adimen artifizialean (AA) oinarritutakoetan, eta egon daitezkeen alborapenak identifikatzen ditut.



Eduki digitalen kudeaketa bateratu eta egituraturako berariazko softwarea erabiltzen dut.



Adimen artifizialeko (AA) tresnen bidez sortutako zirriborroetatik abiatuta, legezko dokumentuak idazten ditut.

4.4 IV. Arloa - Eraldaketa digitala eta aldaketaren kudeaketa



Arloaren deskribapena

Eraldaketa digitala eta aldaketaren kudeaketa arloan sartzen dira Justizia Administrazioaren barruko eraldatze-prozesuei buruzko eskumen guztiak. Hala, aldaketaren kudeaketarekin, ikaste-prozesuekin, beharren diagnostiko eta ebaluazioarekin edo adimen artifizialaren (AA) aplikazioarekin lotutako gaitasunak lantzen dira justiziaren sektorean.

4.4.1 1. Gaitasuna - Eraldaketa digitalari lotutako aldaketaren kudeaketa

Deskribapena

Aldaketa kudeatzeko metodologiak eta tresnak ulertzeko eta erabiltzeko gaitasuna, eta justizia-sektoreko eraldatze-prozesuak arrakastaz gidatzeko gaitasuna.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Etengabeko berrikuntza digitalari aplikatutako kultura- eta antolaketa-aldaketaren gakoak identifikatzen ditut.



Ulertzen dut administrazio publikoaren eraldatze-prozesuei aplikatutako aldaketaren kontzeptua, eta onartzen ditut haren ondorioak.



Stakeholder kontzeptua ulertzen dut eta aldaketa kudeatzeko proiektu batean giltzarri diren stakeholder-ak nortzuk diren identifikatzen dut.

Ertaina



Aldaketa kudeatzeko proiektu baten irismena eta faseak identifikatzen ditut.



Aldaketa kudeatzeko prozesuetan jarrera positiboarekin parte hartuz laguntzen dut.



Stakeholder-en profilak aztertzen ditut aldaketa kudeatzeko tresna propioen bidez, eta proiektuaren kudeaketan duten eraginaren arabera sailkatzen ditut.

Aurreratua



Parte hartzen duten eragileak aldaketak eskatzen dituen trebetasun eta gaitasunez hornitzeko behar diren trebakuntza prozesuetan laguntzen dut.



Testuinguru, teknika, antolaketa eta talde irizpideak erabiltzen ditut proiektuaren faseak planifikatzeko eta estrategiarik egokiena hautatzeko.



Stakeholder-ek aldaketaren aurka duten erresistentzia aztertu eta gainditu egiten dut, diskurtsoa egoera/itxaropen eskema bakoitzera egokituz, eta negoziatu egiten dut proiektuaren faseetan zehar, aurrera egingo duela bermatzeko.

Aditua



Lan egiteko modu berriak sustatzen ditut, justiziaren sektoreko metodologia disruptiboen bidez.



Aldaketaren kudeaketan berrikuntza-metodologiak aplikatzen ditut, aldaketaren liderraren funtzioak onartzen ditut eta proiektu-abiadura desberdinak hautatuz eta aplikatzen ditut.



Aldaketa kudeatzeko prozesuen bilakaera, eraginkortasuna eta eragina ebaluatzen ditut, eta behar diren doikuntzak egiten ditut.

4.4.2 2. Gaitasuna - Nork bere burua ezagutzea, ikastea eta etengabe hobetzea

Deskribapena

Pixkanaka eta etengabegaitzeko eta ikasteko gaitasuna, Justizia Administrazioaren esparruan dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren gaitasun digitalak eskuratzeko, garatzeko eta mantentzeko.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Autoezagutzaren kontzeptua eta garapen pertsonalarekin, ongizatearekin eta adimen emozionalarekin duen erlazioa bereizten ditut.



Onartzen dut garrantzitsuak direla etengabeko ikaskuntzako sistemak nire garapen pertsonal eta/edo profesionalerako tresna gisa.



Hazteko ahalmena garatzeko plan, politika eta protokoloetan aktiboki parte hartzen dut.

Ertaina



Nire arreta zuzentzen dut nork bere burua ezagutzeko praktikak sortzeko eta, hartara, nire emozioei eta portaera-ereduei buruzko pertzepzio hobe sortzeko.



Laguntzarekin, eta berariazko baliabide eta tresnen bidez, gai naiz nire gaitasunen garapen-maila zehatz autoebaluatzeko eta eskura dudan trebakuntza etengabe hobetzeko dudan estrategiara egokitzeko.



Era proaktiboan aprobetxatzen ditut nire esperientziak ematen dizkidan ikasteko aukerak, bai eta beste pertsona batzuen adibideak edo Justizia Administrazioaren esparruan egindako trebakuntza-jarduerak berak ere.

Aurreratua



Ikasteko helburuak lortzen jarraitzeko eta beste pertsona edo lantaldeekiko komunikazioa hobetzeko teknikak, metodoak eta tresnak erabiltzen ditut.



Nire aurrerapena autonomiaz eta aldizka ebaluatzen dut, eta nire ikaskuntzaren hurrengo urratsak nola bideratu planifikatzen dut.



Etengabe ikasi eta hobetzeko estrategiak garatzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko trebatzen ditut, hartara, herritarrak nahiz operadore juridikoak justiziaren sektorearen eraldaketa digitalera eraginkortasunez egokitzeko.

Aditua



Justizia-sektorearen eraldaketa digitalari aplikatutako etengabeko ikaskuntza- eta hobekuntza-sistemen sustapenean aktiboki parte hartzen dut.



Ikasteko komunikazio-giro egokia sustatzeko estrategiak diseinatzea, Justizia Administrazioaren esparruan esperientziak partekatzeko eta ezagutzak eraginkortasunez transferitzeko.



Justizia sektoreari lotutako ikaskuntza digitaleko inguruneetan nire lidergo-profila ezagutu eta garatzeko aukera ematen duten teknika, metodo eta tresnetan sakontzen dut.

4.4.3 3. Gaitasuna - Behar eta erantzun teknologikoen ebaluazioa

Deskribapena

Lanpostuari dagozkion beharrak aztertzeke gaitasuna izatea, tresna eta ingurune digitalen erabilerari dagokionez, horretarako baliabide teknologikoak lanpostuaren beharretara egokituz.

Trebetasun-mailak

Oinarrizkoa



Nire lanpostuari dagozkion eginkizunekin lotutako tresna digitalak ezagutzen ditut.



Nire ohiko jarduera bakoitzerako tresna digital egokia aukeratzen dut.



Laguntzarekin, tresna digital batzuk erabiltzen ditut nire lanpostuari dagozkion funtzioak betetzean sortzen diren arazoak konpontzeko.

Ertaina



Tresna digitalek nire lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko dituzten aukerak eta mugak ulertzen ditut.



Tresna teknologikoak sistematikoki erabiltzen ditut nire lanpostuari dagozkion eginkizunetan, horiek ohikoak nahiz bereziak izan.



